

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	NATURA-INGURUNEA KONTROLATZEKO ETA BABESTEKO KUDEAKETA-PROZEDURAK	Iraupena	70
		Espezifikoa	
Kodea	UF1262		
Lanbide-arloa	SEGURTASUNA ETA INGURUMENA		
Lanbide-eremua	Ingurumen-kudeaketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Natura-ingurunearen kontrola eta babesa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Erabilera publikoko jarduerak eta natura-ingurunearen babesa	Iraupena	180
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Naturaguneetako eta landa-eremuetako erabilera publikoaren kontrola	Iraupena	60
	Hondakinen eta/edo isuriaren kontrola eta zaintza		50

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0083\_3 NATURGUNEAK ETA HAIEN ERABILERA PUBLIKOA KONTROLATZEA ETA ZAINZEA gaitasun-ataleko LB2, LB3 eta LB5 lanbide-burutzapenekin.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Posizionatzeko eta irratiz komunikatzeko teknikak erabiltzea natura-ingurunean.

- EI1.1 Kartografia, iparrorratza, GPSa, prismatikoak eta bestelakoak erabiltzea.
- EI1.2 Plano baten hainbat irudikapen-elementu identifikatzea (eskalak, kotak, irudikapen-sistemak).
- EI1.3 Lanak egiteko behar diren era guztietako neurketak egitea.
- EI1.4 Irrati-transmisioko bitartekoak erabiltzea eta behar bezala mantentzea.
- EI1.5 Komunikazio-protokoloak erabiltzea.
- EI1.6 Internet erabiltzea komunikazio-bitarteko gisa.
- EI1.7 Natura-ingurunean orientatzeko eta posizionatzeko kasu praktiko batean:
  - Ingurunean mugitzea eta orientatzea errazten duten baliabideak identifikatzea.
  - Orientatzeko eta posizionatzeko baliabideak eta tresnak erabiltzea (GPSa, kartografia, prismatikoak eta PDAa, besteak beste), gure kokapena zein den aurkitzeko, ibilbide jakin bat egiteko, eremuak kalkulatzeko eta abarretarako.
  - Mezu-transmisioan komunikazio-protokoloa garatzea (hizkera argia, ulergarriak, zehatza eta laburra).

A2: Natura-ingurunea kontrolatzeari eta babesteari buruzko txostenak, ofizioak, aktak eta atestatuak idaztea.

- EI2.1 Ingurumen-inkaktuak ebaluatzeko informazioa ematea tekniko eskudunei.
- EI2.2 Dokumentu bakoitzaren atalak identifikatzea eta idaztea.
- EI2.3 Dokumentuen izapideak egitean prozedura administratibo egokia erabiltzea.
- EI2.4 Dokumentu bakoitzarekin doan ikus-entzunezko materiala pilatzea.
- EI2.5 Lursailari buruzko probak eta adierazpenak, beharrezkoak direnak, biltzea.
- EI2.6 Ingurumen-inkaktuaren segimendu-fitxak interpretatzea eta betetzea.

A3: Naturagune bateko landare- eta animalia-espezie nagusiak ezagutzea.

- EI3.1 Espezien laginketa-, segimendu- eta harrapaketa-metodoak bereiztea eta/edo deskribatzea, erroldak kontrolatzeko eta egiteko.
- EI3.2 Faunaren kontrol sanitarioa egiteko neurri egokienak zein diren azaltzea.
- EI3.3 Laginak jasotzeko, kontserbatzeko eta garraiatzeko modurik egokiena aukeratzea.
- EI3.4 Lekuan dauden espezieen dibertsitateari, dentsitateari, banaketa-areari, portaerari eta osasun-egoerari buruzko txostenak egitea.
- EI3.5 Espezie babestuak berreskuratzeko eta/edo kontserbatzeko planak interpretatzea.
- EI3.6 Naturagune jakin bateko landare- eta animalia-espeziak deskribatzeko kasu praktiko batean:
  - Laginketa- eta zundaketa-metodurik egokienak identifikatzea.
  - Identifikatutako espezieak ezagutzea eta erregistratzea, ezaugarri fisionomikoak, ohiturak eta abar bereiziz.
  - Espezien banaketari, dibertsitateari eta osasun-egoerari buruzko txosten bat egitea.
  - Espezie babestuak berreskuratzeko planen betetze-egoera kontuan hartzea.

A4: Natura-ingurunekeko ondare arkeologikoa eta historikoa aztertzea eta/edo deskribatzea.

- EI4.1 Aztarnategi berrietan edo lehendik daudenetan aurkitutako fosilei buruz informatzea.
- EI4.2 Fosilen aurkikuntzan, lurzoruaren kokapena, ezaugarriak eta titulartasuna eta egon daitezkeen mehatxuak adieraztea.
- EI4.3 Aztarnategi berrietan edo lehendik daudenetan aurkitutako hondakin historikoei buruz informatzea.

EI4.4 Hondakin historikoen aurkikuntzan, lurzoruaren kokapena, ezaugarriak eta titulartasuna eta egon daitezkeen mehatxuak adieraztea.

EI4.5 Fosilak eta/edo hondakin historikoak jasotzeko, kontserbatzeko eta garraiatzeko modurik egokiena aukeratzea.

A5: Natura-ingurunea kontrolatzeko eta babesteko oinarrizko ingurumen-araudia aplikatzea.

EI5.1 Baso- eta ingurumen-agenteen kontrol- eta babes-zereginak, funtzioak eta aplikazio-eremua identifikatzea, araudiaren arabera.

EI5.2 Jarduera profesionalean, erantzukizun zibila eta penalaren arabera eta hura aplikatuz jardutea.

EI5.3 Ingurumen-alorreko oinarrizko legediaren berri izatea.

EI5.4 Kontserbatze- eta/edo berreskuratze-planak interpretatzea behar bezala aplikatzeko.

EI5.5 Ondare naturala, paleontologikoa eta/edo historikoa babesteko katalogoak identifikatzea eta behar bezala erabiltzea.

## Edukiak

### 1. Natura-ingurunean posizionatzea eta informazioa transmititzea.

- Orientatzeko eta datuak biltzeko tresnak.
  - Iparrorratza.
  - Altimetroa.
  - Prismatikoak.
  - Natura-ingurunearen kartografia.
  - Posizionamendu-sistema globala (GPS).
  - Sakelako ordenagailuak (PDA).
- Transmisio-bideak. Komunikazio-ekipoak. Komunikazio-protokoloak. Irrati-komunikazioko sareen mantentze-lanak.
- Internet eta posta elektronikoa.
- Telekomunikazioei buruzko oinarrizko legedia.

### 2. Natura-ingurunea kontrolatzeari eta babesteari buruzko txostenen, akten eta atestatuaren prestaketa.

- Txostenak, ofizioak, aktak eta atestatuak idaztea.
  - Dokumentu bakoitzaren helburuak eta egitura.
  - Erregistro-liburuak.
  - Prozedura administratiboa.
- Laguntza-materiala.
  - Probak biltzea.
  - Ikus-entzunezko materiala.
  - Adierazpenak.
  - Zainketa-katea.
- Justizia-administrazioaren egitura eta funtzionamendua.
  - Prozedura judiziala.
  - Hasiara-aktak, prozedurak eta azken akta.
- Ingurumen-inpaktuaren adierazpenak gainbegiratzea.
  - Ingurumen-inpaktuaren adierazpenen ikuskapena.
  - Segimendurako eta kontrolerako fitxak betetzea.

### 3. Natura-ingurunearen identifikazioa.

- Faktore biotikoak, abiotikoak eta antropikoak. Landaredia. Fauna Fisiografia. Edafologia. Geologia. Hidrologia. Gizakiaren ekintza.
- Meteorologia eta klimatologia.
- Ekologia.
  - Ekologiaren definizioa eta haren printzipioak.
  - Kontzeptuak: ekosistemak, txoko ekologikok, ekotonoak, oreka ekologikoa, materia- eta energia-fluxuak.
  - Ekosistemen hauskortasuna.
- Biodibertsitatea. Kontzeptua. Kontserbazioaren garrantzia. Biodibertsitatea galtzearen ondorioak.
- Espezieak identifikatzeko teknikak.
  - Espezieak zehaztea.
  - Flora eta fauna identifikatzeko gidaliburuak eta gakoak.
- Laginketak eta zundaketak. Motak. Helburuak. Egiteko teknikak. Laginak jasotzea eta garraiatzea.
- Populazioen dinamika. Kontzeptua. Populazioaren definizioa. Kontuan hartu beharreko elementuak.
- Espezieak berreskuratze eta babesteko planak.
  - Kontzeptua eta haiek idaztearen helburuak.
  - Haien edukia.
  - Ezartzen duten segimendua eta zaintza.
- Oinarrizko paleontologia.

### 4. Arkeologia- eta monumentu-ondarea ezagutzea.

- Natura- eta landa-inguruneko arkeologia- eta monumentu-ondarea identifikatzea.
- Arkeologia- eta monumentu-ondarea kontrolatzea eta zaintzea.
- Karta arkeologikoak interpretatzea.

#### 5. Natura-ingurunea kontrolatzeko eta babesteko oinarrizko ingurumen-araudiaren aplikazioa.

- Baso- eta ingurumen-agenteen zereginak erregulatzea.
  - Araudia.
  - Funtzioak.
  - Aplikazio-eremua.
  - Erantzukizun zibil eta penala jarduera profesionala gauzatzean.
- Naturagune babestuak. Kontzeptua. Motak. Helburuak.
- Administrazio eskudunak.
- Guneak babesteko estatuko eta autonomietako legedia.
- Mendiei buruzko oinarrizko legedia.
- Ingurumen-inpaktuaren oinarrizko legedia.
- Kostaldeak babesteko oinarrizko legedia.
- Arkeologia-ondarea babesteko oinarrizko legedia.
- Flora eta fauna babesteko katalogoak.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagapenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Natura-ingurunearen kontrola eta babesa.